

2015-03-31KO OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2015eko martxoaren 31n, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeke zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena eta Gorka Murua Macuso.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra, Noelia Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Josu Yurrita Loitegui eta Tomás Etxeberria Sarasola

Aipatu behar da Olaia Nieto eta Noelia Lataburu andereak ama berriak izan direla.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA:

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2015-02-09 ; 2015-02-24).

2015eko otsailaren 9ko ez-ohiko eta 2015eko otsailaren 24ko ohiko saioen akten zirriborroak aurkeztu dira, eta aho batez onartu dira.

BIGARREN GAIA:

ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2015eko 46. zenbakitik 2015eko 75. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA:

IRURAKO JUBILATUEN ELKARTEARENTZAKO DIRU-LAGUNTZAREN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak adierazi du oraindik ez duela amaitu diru-laguntzaren hitzarmenaren proposamena eta, ondorioz, Udalbatzak aho batez erabaki du gaia mahai gainean uztea datorren osoko bilkurarako.

LAUGARREN GAIA:

2015EKO DIRU-LAGUNTZAREN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ematea proposatzen duen edozein erakundek diru-laguntzen plan estrategiko bat zehaztu behar dute; bertan, beren aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak jaso beharko dituzte, haiek lortzeko beharrezkoa den denbora, aurreikusitako kostuak eta baita izango dituzten finantzazio iturriak ere.

Hori ikusita Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

1.- Irurako Udaleko 2015eko diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

2.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones los órganos de las Administraciones Públicas o cualesquiera entes que propongan la concesión de subvenciones deben concretar un plan estratégico de subvenciones recogiendo los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO

1º.- Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones para 2015 de este Ayuntamiento de Irura.

2º.- Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

BOSGARREN GAIA:

TOLOSALDEA GARATZEN S.A. ENPRESAREN 2015EKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldea Garatzen S.A. enpresaren kide garenez eta 2014ko abenduaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako gestio Planean zehazten denaren arabera, 2015. urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena 9.907,00 eurokoa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

SEIGARREN GAIA:

LOATZO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAREN 2015EKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Loatzo Udalerrien Mankomunitateko kide da Irurako Udala, eta Mankomunitateko batzorde eragileak, 2015eko otsailaren 19an egindako ohiko bilkuran, 2015 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta 2015eko ekitaldirako udal ekarpenak onartu zituen. Irurako Udalaren kasuan ekarpen hori 42.144,93 eurokoa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

ZAZPIGARREN GAIA:

IRURAKO BIZTANLE BATZUEN ESKAERA KALE BATEN IZENA ALDATZEKO.

Martin Lasa Rekaldek eta beste hogeita bi Laskibar Bailarako biztanlek aurkeztu dute eskaera hau:

“Irurako Udalak herriko kaleen izendegia aldatzea erabaki duenetik, herriko kale eta eraikin askori eragin die aldaketa horrek. Behean izenpetzen dugunok, adierazi nahi dugu, Laskibarren, Gurdi Kalea

izendatu berri duten kaleari, Laskibar Kalea deitzea nahi dugula, hori delako gure ustetan, bere benetako eta jatorrizko izena, guztiok horrekin identifikatzen dugulako eta izen berria ez delako batere egokia.”

Hori ikusita, Udalak adierazi nahi du, kaleen izen berriak onartzeko parte-hartze prozesua egin zenean, ez zela proposamen hau aurkeztu; bestela, agian, beste izen batzuk onartuko zirela Laskibar Bailararako. Hala ere, Udalak ez du arazorik izen hori aldatzeko. Idatzian agertzen den bezala, kaleen izenak eta atarien zenbakiak oraintxe aldatu dira eta ez da komeni berriz aldatzea, jendea eta erakunde ofizial edo ez ofizialak ez nahasteko; horregatik, bi izenak jarriko dira kaleko plakan. Baina nomenklatura ofizialean aurreneko izena bakarrik (Gurdi Kalea) mantenduko da. Etorkizunean beste aldaketa handirik egiten bada, izen berria jarriko da ofizialki.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

ERABAKIA

- 1.-Gurdi Kaleari izen berri hau onartzea: Laskibar Kalea.
- 2.- Nolanahi ere, kaleko izenaren nomenklatura ofiziala ez aldatzea, oraingoz, eta kaleko plakan izen hau jartzea: Gurdi Kalea - Laskibar Kalea.

ZORTZIGARREN GAIA:

IRURAKO UDAL PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ALDAKETA PROPOSAMENA AZTERTZEA.-

Irurako Udala, etorkizunari begira, aztertzen ari da udal langileen plantilla eta lanpostuak egokitzea Udaleko eta udalerriko beharrei. Prozesu honetan, Udaleko langileekin eta beraien ordezkariekin bilerak eta elkarrizketak egin ditu. Orain, aldaketa nabarienak aipatu eta komentatzen dira zinegotzien artean.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

Udaleko plantilla eta lanpostuen aldaketa proposamenari oniritzia ematea eta izapide legalak egitea, Udalbatzak berriz eztabaidatzeko eta onartzeko.

BEDERATZIGARREN GAIA

EUSKO JAURLARITZAK BULTZATU DUEN UDAL LEGE EGISTAMOAREN AURREAN EGINDAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Eusko Jaurlaritza bultzatzen dabilen Udal Lege egitasmoaren aurrean Irurako Udalak zera adierazi nahi du:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kosta izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein Udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez uneko interes politiko eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengan halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

Lege egitasmoak pate-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkariak guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELe ez ditu EAEko udal guztiak ordezkatzeko. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean diharduen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak dira. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpon gaitza den arazoa izango du bere baitan.

LEGEAK PROPOSATZEN DUEN FINANTZIAZIO EREDUA:

Udalei hainbat eskumen berri bereganatzeko aukera onartzen zaie. Aitzitik, ez da oso argi geratzen eskumen horiek guztiak garatzeko finantziazio bide berriak zeintzuk izango diren. Aurreikuspen batzuk egiten dira baina oso azaletik. Horrekin udalak gaur eguneko egoera berdinean geratzen dira. Eskumenekin batera finantziatorako iturri berriak aurreikusi beharko liriateke. Bata bestea gabe egiteak desoreka handiak sortzen dituelako.

Bestalde, jada udalek ez dagozkien baina garatzen dituzten eskumenak onartzen zaizkie, baina finantziazio bide berririk ez. Tamalez, hori horrela hainbat udalek ezingo liokete gaur egungo egoerari eutsi.

Ez da instituzioen arteko kuota eguneratu edo egokitzeko urratsik ematen. EAEko erakundeen arteko baliabideen banaketa Ekarpenean Legearen arabera da. Bertan koefiziente bertikala eta horizontalen bidez banatzen dira baliabideak. Eusko Jaurlaritzak %70,04 jasotzen du eta gainontzeko %29,96 Aldundien eta Udalen artean banatzen da. Koefiziente horien

moldaketa edo eguneratzeak ahalbideratu beharko lituzke eskumen berriak garatzeko finantziario nahikotasuna.

HIZKUNTZA: Indarrean dagoen euskaren legea oinarritzat hartuta, Udalen Lege honetan, hizkuntzaren erabileran, euskaraz hitz egiteko borondaterik ez duten pertsonen eskubideak lehenesten dira. Era berean Euskara hutsean bizi nahi duten herritarren eskubideak bortxatuz. Udalek euskara hutsez jarduteko duten borondatea indartu eta babestu egin behar da. Lege honek ez du bere horretan hori bermatzen eta horretarako aukera bikaina galtzen da. Hizkuntz eskubideen bermean aurrera urratsak eman behar dira. Urrats horiek legeak berak espresuki bildu behar ditu.

UDAL AUTONOMIAREN DEFENTSA: hitzaurrean adierazpen garrantzitsuak egiten dira norabide horretan. Ildo beretik, artikulatuak ere hainbat aipamen gordetzen ditu. Tamalez, hori guztia filosofia hutsean geratzen da. Momentu honetan badira zenbait lege sektorial tramitazioan (EAEko portuen kudeaketarako lege egitasmoa, Funtzio publikoko legea,...) udalen hainbat eskumen bertan behera utziko lituzketenak. Hori da ekidin beharreko jarduera. Izan ere, lege honetan autonomiaren defentsa egiteak ez du ezertarako balio gero praktikan beste lege sektorial batzuen bitartez urratzen bada. Hitzaurrean ez ezik, artikulatuaren bidez ere bermatu behar litzateke hori guztia. Udal lege honek lege marko izaera izan dezan neurriak hartu behar dira. Hartara, gerora abiarazten diren lege sektorial guztiek lege egitasmo hau errespetatu beharko lukete.

Bestalde, udalek eskumen berriak eskuratzea euren kaudimenarekin lotu nahi du legeak. Hori udalen autonomia defendatzearekin zuzenean kontrajartzen da. Udalek kudeatu beharreko eskumenen ardatzak ezin du ogasun baldintzetan oinarritu. Autonomia lokalaren defentsak beste oinarri batzuk eduki behar ditu: gertutasuna, zerbitzuen kalitatea, herritarren onura,...

Lege honek salto kualitatibo bat suposatu beharko luke. Zoritxarrez alor jakin batzuk arautzera mugatzen da. Oinarrizko legedia estatukoak izaten jarraituko du. Hortaz, EAEko udalen inguruabar guztiak arautzeko erronkari eutsi ordez, bestelako interesak ahalbideratzen dira. Bien bitartean, EAEko udalek legeri espainiarrera erremittitzen jarraitu beharko dute.

EUDEL: erakunde honen aldeko diskriminazio positiboa burutzen da lege egitasmo honetan. Lege honek udalen mintzakide bakartzat, hartu nahi du EUDEL. Aitzitik, EUDELe ez ditu EAEko udalen %40 ordezkatzen. Udalen ordezkaritza burutzen dituen elkarteez hitz egin beharko luke legeak eta ez EUDELi buruz espresuki. Udalen kontrolerako

urrats garbia da horrekin guztiarekin eman nahi dena. Hori ez zaigu inondik inora bidezko iruditzen.

TOKI ERAKUNDEAK EZ DIRA AINTZAT HARTZEN: tokiko erakundeen legea izan ordez udalen lege egitasmoa bultzatu nahi izan da. Udalaz azpiko erakundeak ez dira aintzat hartzen eta horiek gure herrien antolaketan izan duten garrantzia ez da ageri. Gero eta indar handiagoa duten eskualdeen eta kuadrilen errealitateari ere ez zaio heltzen. Gainera ez da udal eta foru instituzioen artean dagoen errealitatean sakontzeko urratsik ematen.

HERRITARREN PARTEHARTZEA: herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik herritarrekin zuzenean lan egiteko bitartekoak jarri eta sakondu behar dira. Kultura berri bat sustatu behar da. Horretarako lege egitasmo hau erabakigarria izan daiteke. Legeak parte-hartzeari aipamen bat egiten badio ere, ez du behar adina baliabide jartzen horretarako. Aukerazko tresna bezala aipatzen da. Urrats zehatzak emateko baino espedientea kunplitzeko barnebiltzen ditu parte-hartzeari buruzko edukiak.

Bestalde, ez da ezer egiten udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko: ez plenoan, ez batzorde informatiboetan,... Herritarrentzat intrintsekoak beharko luketen hainbat eskubideren (informaziorako eskubidea, aintzat hartua izateko eskubidea,...) inguruan ez da aipamen bakar bat egiten.

EUSKAL HERRIKO BESTE INSTITUZIO PUBLIKOekin HARREMANTZEKO NEURRIAK: ez da inolako aipamen zuzenik egiten Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzio publikoekin harremanak ahalbideratzeari begira. Gure iritziz hori sekulako gabezia da. Lege egitasmo hau probestu beharko guke harreman inter-instituzional guztiak ahalbideratzeko. Bai instituzio nafarrekin eta bai iparraldeko instituzioekin. Gaur egun hainbat egitasmo martxan dira Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzioekin elkarlanean gauzatzen ari direnak. Horiek, berriz ere, arauketa zehatzik gabe eta, larriagoa dena, inolako bermerik gabe geratuko lirake.

Horregatik guztiagatik, IRURAKo Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek onartzea proposatzen zaio:

IRURAKo Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.

IRURAKo Udalak, Jaurlaritzari Udalen aldetik egiten diren ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko prozedura aurkeztu dezan dezan eskatzen du.

IRURAKo Udala, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko bitartekoak jartzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari.

IRURAKO Udalak, Udal zein Toki Entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko deia egiten du. Orain artean udalak, egitura instituzionalaren azken terminalak izan dira eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izaki, Udalak zein gainerako Toki Entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da.

Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio.”

Hori ikusita, Udalbatzak mozioa onartzea erabaki du.

Galdera eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia tratatu da, batzarkideek presazko egoera adierazi baitute aho batez, beraiek osatzen baitute Udalbatzarraren partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa.

HAMARGARREN GAIA

OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Iragan abenduan, Osasun Saileko arduradunek, Guillermo Viñegra Sailburu ordeak, Rafael Uribarren Gipuzkoako osasun arduradunak eta Iñaki Berraondok (Aseguramendu eta kontratazio sanitarioko zuzendaria), Tolosaldeako alkateon ordezkari bati, OSI, Eskualdeko osasun arreta antolakuntza integrala, aurkeztu zieten.

Aurkezpen honen bidez, 2015arekin batera, OSIa martxan jarriko zela iragarri zuten eta honen bidez Tolosaldeko osasun arretak hobekuntzak izango zituela esan ere bai.

OSIak Tolosaldean gauza gutxi aldatuko ditu, arazoa ez baita OSIa ezartzea, osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik.

Klinika pribatuak, ezinezko egiten du zerbitzu integral eta koordinatu bat izatea:

- Nola integratu bi sistema, baten eta bestearen arteko helburuak eta lanerako erak desberdinak izanda. Mila bider adierazi bezala, sistema publikoak herritarrei zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa ematea du helburu, sistema pribatuak berriz, irabazi ekonomikoak. Ondorioz,

klinikak herritarren osasunarekin negozio egiteko bitarteko guztiak erabiliko ditu bere enpresa jarduerari ahal duen errentagarritasun handiena ateratzeko. Horretarako, pertsonal ratio txikiagoak edota bestelako neurriak hartuz. Eta neurri horiek kalitatean eragina dute.

- Nola integratuko dira bi sistemak, besteak beste, programa informatikoak ez badaude oraindik orain bateratuta.

Udal honen ustez, OSI honen aurkezpena, klinika pribatuaren legitimazioa eta onarpena gauzatzeko beste pauso bat da. Beste pauso bat, sistemaren pribatizazioaren bidean.

Eskualde honetako OSI egoki bakarra, gainerako eskualde guztietakoa bezala, gestio eta arreta publiko integrala, %100ekoa, duena izan behar du.

Legealdi oso bat daramagu udal ordezkariok, eta beste eragile batzuk oraindik denbora gehiago, berdina adierazten: Osasun Zerbitzu publikoaren beharra eta honen erakusle Tolosaldean buruturiko, onarturiko eta antolaturiko:

Manifestazio, firma bilketa, mozio, adierazpen, agerraldi e.a.

Honen aurrean EJko Osasun Saila, honen guztiaren aurka agertu da, eta Tolosaldeko osasun zerbitzuaren pribatizazioa inposatzen jarraitu du. Udal ordezkari, eragile eta herritarren gehiengoaren nahiari bizkar ematen jarraitu du.

Sarri adierazi moduan, Tolosaldean egiten ari direna, esperimentu bat da, pribatizazioaren esperimentua. Zerbitzu unibertsal eta publiko bat gutxi batzuen negozio bilakatzeko froga.

Sistema publikoan sinesten dugu, sistema publikoa delako osasun arreta hoberena eskaintzen duena, inori bizkar ematen ez diona eta benetan denona dena.

Ez dugu beste inon baina gehiago nahi, baina ezta gutxiago ere, berdina, gure eskubideak, besteenak adina balio dutelako, osasun sistema publikoa nahi dugu.

Eta hau gauzatzeko ezinbestekoa da bertako eragileen iritzia jaso eta kontutan hartzea. Udala horretarako prest dago, sistema publiko horren eraikuntzan, antolaketan, parte hartzeko, lanerako, ez ordea OSI publiko-pribatu batetako organo parte hartzailetara joan eta inposaketa hau legitimatzeko.

Inoiz ez da berandu hartutako erabaki okerrak zuzentzeko, Madriden gertatu bezala adibidez. Tolosaldeko bizilagunen osasuna dago jokoan, eta horrek edozein hitzarmenek baino balio handiagoa du.

Honen aurrean IRURA Udalak eskatzen du:

- Gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.

- 2011ko azaro aurretik anbulategietan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.

- Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari hastea eskatzea.

- Mozio hau Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNNetako talde politikoei igortzea.”

Udalbatzak aho batez onartu du mozioa.

HAMAIKAGARREN GAIA.

GALDE-ERREGUAK.-

Ez dago galde-erregurik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:30ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA